



LAN OSASUNEKO BILERA - 30.03.2017

Pasa den ostegunean, martxoak 30, lan osasun arloko azken komitea ospatu zen. Administrazioaren partez honakook joan ziren: Amparo Lopez zuzendaria; Begoña Otazua pertsonalburua; Santi Ortega Bizkaiako EATko arduraduna; eta bi administrari. Prebentzio Zerbitzuko bi teknikariak egon ziren. Eta, jakina, sindikatuon prebentzio delegatuak ere. Bilerako gai ordena hau zen:

- 2016.02.20tik 2017.03.24ra emandako espedienteak
- 2016ko osasun zaintze memoria
- 2016ko analisi epidemiologikoa
- 2016ko memoria eta 2017rako planifikazioa
- Osasun delegatuok proposatutako gaiak

Nabariak dira gaur egun Prebentzio Zerbitzuak dituen gabeziak, esate baterako azkenengo dokumentazioa aurreko egunean arratsaldeko seietan jaso izana. Gainera 2012ko udatik ari gara zerbitzuko arduraduna noiz izendatuko duten zain. Zuzendariarekin izandako lan osasunari buruzko azken bileran komunikaziorako mekanismo azkarrak artikulatzeko beharra helarazi zigun sailak; baina oraindik ere ez dira gauzatu. Hau guztia dela eta, prebentzio zerbitzuak dituen gabeziak salatzen jarraituko dugu, prebentzioa eta ez zuzenketa jorratzen has gaitezen.

Hauexek dira LABek proposatutako gaiak, gehienak azken komiteetan ateratakoen errepikatzeak:

- Lankide batzuen kexak jaso ditugu, 2016an mediku-azterketa eskatu zutenak baina ezin izan zuten egin hitzorduak emateko egun falta zela eta. Jakinarazi digute pertsona hauek eskatu dezaketela hitzordu berria mediku-azterketa 2017an pasatzeko.
- Osasun arrazoiengatik langile bat lanpostu batetik bestera mugitu ahal izateko zerbitzu-eginkizunak baino sistema bizkorragoa eskatu dugu LABetik. Sistema honek premiazko kasuak zein interinoak (zeinek ezin duten zerbitzu-eginkizunetan parte hartu) barne hartuko lituzke.
- Bilboko EATn eremu elektromagnetikoen zein bestelako zuzentze neurrien azterlana egiteko eskakizuna ere egin dugu. Eskakizun hau egiten dugu hortik hurbil kokatutako kablez eta informatika aparatuz beteriko gela dela eta. Halaber bereziki sentikor diren langileek egon litezkeen arriskuak ezagutu ditzaten sistema bat ezartzea eskatzen dugu.

- Lan istripuei buruz, mutuak lan istripu bezala ez dituela onartzen kasu batzuk eman direla jakin dugu. Honen aurrean LABek errekurritzera animatzen zaituzte, kontingentzia aldatzeko prozedura martxan jarritz.
- Gasteizko Jauregian alergia kasu batzuk eman dira (kathon, formaldehido eta nikel), hau dela eta garbiketa eta garbitasun produktuak (eskuak garbitzeko saboiak, garbiketa produktuak) hornitzeko hurrengo kontratuetan alergia kasu hauek kontutan hartzeko eskatu diogu Sailari.
- Bilboko Fiskaltzan langile askoren egoera dela eta soluzioak beharrezkoak direla azpimarratu dugu. Gai honi buruz 2014ko lan ikuskakatzailleak arriskuen ebaluaziori buruz egin zuen errekerimendua bete gabe dago; kargen manipulazioa sahiesteko antolaketa neurriak eta neurri teknikoak hartu behar dira; ez dira egokitu ezta bulego altzari batzuk arrisku muskuloeskeletikoak gutxitzeko. LABek hau guztia martxoan salatu du Lan ikuskaritzan.
- Durangoko klimatizazio sistemarekin dagoen arazoak konpondu gabe jarraitzen du. Saitetik esan digute kontratazio teknikari lanpostua bete behar dela obra esleipena egin ahal izateko. 2013. Urtean hasi ziren lehenengo kexak gai honekin eta nahiz eta prentsan behin baino gehiago atera aurreko Sailak ez zuen ezer egin konponketa bilatzeko.

Orokorrean, Osasun Komitean jorratutako gaiak behin eta berriro errepikatzen dira. Hau gertatzen da gehienbat Prebentzio zerbitzuak duen gisa baliabide defizitagatik. Behin eta berriro esan du zuzendariak sindikatuei entzuteko eta haiekin batera lan egiteko prest dagoela irtenbideei ekiteko; orain falta dena da asmo polit horiek guztiak mamitzea, zuzendariak adierazitakoa hutsean gera ez dadin. Hain zuzen, hauxe da haren perla: la seguridad laboral es primordial y la prevención un valor a añadir en todos los aspectos del servicio”.

2017ko apirila